



→ **DISTANTZIA:** 22,2 KM
 ⌚ **AURREIKUSITAKO DENBORA:** 9 H 25 MIN
 ↗ **DESNIBELA:** 1564 M


HIRU ERREGEEN MAHAIA (2.444 m)

HASIERA:
 MATA DE HAYA



OHARRA:

- Goi mendiko ibilbidea da.
- Goiko aldean laino itxia ohikoa da; bat-batean sortzen da. Beharrezkoa da urte osoan jantzi beroak eta GPS-a eramatea.
- Neguan gune izoztuak egon daitezke, baita elur-jausi eta eroriko bertikalak izateko arriskua ere. Urtaro horretan egiten bada, beharrezkoa da segurtasun eta autobabes material egokia eramatea.



Hiru Erregeen Mahaia (2.444 m) Nafarroako Pirinioetako gailurrik altuena da. Oso ibilbide gogorra da desnibelagatik zein luzeragatik, egokia soilik sasoi onean dauden pertsonentzat. Mata de Hayatik abiatuz, lehenik Belaguako txokoa barneratuko gara, eta ondoren Larrako Natura-Erreserba zeharkatuko dugu, Mendebaldeko Pirinioetan hobekien kontserbaturiko eta xarmarik handienetako gunea. Lehen zatian PR-NA 203 bidetik joan gara, eta aurrerago, PR-NA 203 bidea Larreriara desbideratzen denean, Belagua ibaiaren ertzetik joan gara, Aztaparretako sakanetik Erregearen Haitzerantz. Lehenengo desnibel gogorrak igo eta gero, 1.600 metroko altueran, Larreriako lepotik datorren GR 12 bidearekin elkartuko gara. Bertatik gora egingen dugu GR 12 bidetik Larrako ateko sakonuneraino, eta gero ekialderantz igotzen jarraituko dugu, Hiru Erregeen Mahaia heldzeko.